

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

UR PARTZUERGOA, LEZAKO UDALA ETA NAVARIDASKO UDALA

Idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea

Alkatetzaren Ebazpena

Nola eta Gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzko Errege Dekretuaren arabera (1732/1994 Errege Dekretua, uz-tailaren 29koa), Lezako Udalaren eta Navaridasko Udalaren Ur Partzuergoko lanpostu hori estatu mailako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordeta dagoen, idazkaritza-kontuhartzaitza azpieskalako funtzionarioentzat, eta eragotzi gabe hargatik irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuaren lehen xedapen iragankorreko 2 c) eta d) puntuetan xedatutakoa .

Nola eta lanpostu hori hutsik dagoen 2015eko abuztuaren 18az geroztik.

Kontuan hartuz Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.h) artikuluan xedatutakoa (7/1985 Legea, apirilaren 2koa).

Honen bidez, hau ebazten dut:

Lehenengoa: Hamabost egun balioduneko epea hastea, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik hasita, hautagaiak aurkezteko dekretu honen eranskinean doan ereduaren arabera, Lezako Udalaren eta Navaridasko Udalaren Ur Partzuergoko idazkari-kontuhartzaile lanpostua aldi baterako izendapen bidez betetzeko.

Estatu mailako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, lanpostuaren azpieskala eta kategoria bereko hautagaiak lehentasuna izanik; kontu hori behar den moduan egiaztatuko da.

Hautagai bat baino gehiago aurkezten badira, honako hau proposatuko da izendatua izateko hautagaitzat: puntu gehien lortu duena parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak argitaratutako azken merezimendu lehiaketan

Bigarrena: Jakinarazten da idazkari-kontuhartzaile lanpostuak 4. hizkuntza eskakizuna duela esleituta, derrigortasun datarik gabe. Lanaldia osoa izango da.

Hirugarrena: Behin-behineko izendapena proposatzea Arabako Foru Aldundiari, hautatutako hautagaiaren alde.

Laugarrena: Ebazpen honen berri ematea udalbatzari, egiten duen lehenengo bilkuran.

Lezako Udalaren eta Navaridasko Udalaren Ur Partzuergoko lehendakaria
MIGUEL ANGEL FERNÁNDEZ GONZALEZ

Eranskina

.....jaunak/andreak (NANa:; jakinarazpenetarako helbidea:; telefonoa:), zeina gaikuntza nazionalako funtzionarioa baita , azpieskalakoa, eta zeinak egun toki administrazioan..... lanpostua betetzen baitu, hau

Adierazten du:

Jakin duela Lezako eta Navaridasko Udalen Ur Partzuergoko idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik dagoela 2015eko abuztuaren 18az geroztik, eta aukera dagoela behin-behinean betetzeko, bat etorritik Gaikuntza nazionalako toki administrazioeko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzko Errege Dekretuaren 30. artikulua xedatutakoarekin (1732/1994 Errege Dekretua, uztailaren 29koa),

Betetzen dituela, bere ustean, lanpostu horri dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion iza-pideak betez,

Eskatzen du:

Lezako eta Navaridasko Udalen Ur partzuergoko idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin-behinekoko izendapenez betetzeko prozeduran parte hartzea.

Honekin batera, ondoko agiriak aurkezten dira:

NANaren fotokopia

Estatu mailako gaikuntza duen funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.

....., 2015ekoaren(e) an.

Sinadura.....